

'Goizueta eta Aranoko hizkerak' liburua aurkeztu dute Iruñean

Juan Jose Zubiri eta Patziku Perurena izan dira liburu berri horren egileak

Asier Legarda / Iruñea

Nafarroako Gobernuako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak Goizueta eta Aranoko hizkerak izenburuko liburua aurkeztu zuen atzo Iruñean. Juan Jose Zubiri, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) irakasleak eta Patziku Perurena idazle goizuetarrak idatzi dute liburua. Bertan bi herri horietako euskalkien ikuspegi linguistiko eta etnolinguistikoa dira aztergai.

EGILEEN esanetan, lanaren helburua ez da hiztegia, jostera edota azentua bezalako ñabardurak jorratzea, bi herrietako ikuspuntu orokorra azaltzea baizik. Herriko istorio ezezagun eta jasoga-beak herriko jendeari ezagutaraztea da helburua, haien ezaugarri bereizgarriak eta hizkeren ezaugarriak adieraziz.

Liburua bi atal nagusitan banatu dute egileek. Atal linguistikoa, «bi herrien hizkuntzen berdintasunak azpimarratzen dira, bi herrietako bokalismoa eta kontsonantismoa, deklinabidea eta aditz erabilera», Juan Jose Zubiriren azaldu zuenez. Bigarren atal nagusia etnolinguistikari dago zuzendua, Patziku Perurenak esan zuenez, «hobe izango litzateke atal horri herri literatura deitzea, Zubiriren atalean hizkuntza disekatua aztertzen den heinean, atal honetan hizkuntza bizia baita azter-



OSKAR MONTERO

Goizueta eta Aranoko hizkerak liburuaren aurkezpenaren une bat, atzo Iruñean.

gai, Goizueta eta Aranoko aitona-amonen kontuak, bertsolarien pasadizoak...».

Laguntzaile ugari

Bi egileek adierazi zuten, «orain argitaratutako liburu honetan aztertutakoak jasotzen eta jorratzen urte eta erdi luze igaro zen, eta urte batzuk pasatu dira lana amaitu zenetik». Liburuaren azalean bi egile horien izenak bakarrik agertzen badira ere hainbat laguntzaile izan dituzte, hala nola Goizueta eta Aranoko hainbat biztanlek urteen poderioz ikasi eta ikusitakoak azaldu dizkiete.

Koldo Zuazo eta Iñaki Camino Euskal Herriko Unibertsitatekoen (EHU), Patxi Salaberri NUPEkoaren eta aztertzen den eskualdeko euskara teknikari David Anauten laguntza ere eskertu zuten Zubirik eta Perurenak.

Fernando Perez de Viñaspre Nafarroako Gobernuako Hizkuntz Politikarako zuzendariak adierazi zuenez, liburu hau euskalkiek normalizazio prozesuan duten garrantziaren beste adibide bat da, eta gogoratu zuen berak zuzentzen duen sailak apustu handia egin duela Nafarroako euskalkiak hedatu eta gara daitezen. Hiz-

kuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak, Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitateak eta Gobernuak sinatutako hitzarmena gogoratu zuen, halaber, Perez de Viñasprek. Horri esker *Leitza eta Aresoko hizkerak* liburuak kaleratu baitzen duela hilabete inguru, eta atzo aurkeztutako lanaz gain beste hainbat liburu argitaratzeko lanak hasiak baitira.

Goizueta eta Aranoko hizkerak liburuaren 700 ale argitaratu dira, milioi bat pezeta inguruko kostuarekin. Liburuak 2.000 pezeta balio du (80 libera).

Lanbide heziketa euskalduntzearen aldeko mobilizazio eguna iragarri du IAK datorren ostiralerako

■ Hainbat eskualdetan beste arloetako ikasleei ere mobilizatzeko deia egin die ikasleen elkarte horrek

Erredakzioa / Donostia

LANBIDE HEZIKETAN euskarak duen «egoera tamalgarrria» zuzentzeko beharra dagoela ueste du Ikasle Abertzaleak (IA), eta horren harian mobilizazio eguna antolatu du datorren ostiralerako.

IAk gogoratu du Hego Euskal Herrian moduluen %8,77 bakarrik ikas daitezkeela euskaraz, eta, gogoratu du

herrialde batzuetan, Araban eta Nafarroan kasu, egoera oraindik okerragoa dela. Araban ez dago modulu bat ere euskaraz ikasterik, eta Nafarroan %1,65 soilik.

IAk dioenez, egoera hori azaltzeko aitzakiak besterik ez dituzte erabiltzen botere publikoek, «Javier Markotegi eta Iñaxio Oliveritik hasita». «Egoera ez da koiunturala, baizik eta estrukturala; ez da disfuntzio bat, nahigabeko

ondorio bat». Aitzitik, IAK uste du egoera hori Euskal Herrian dagoen hezkuntza sistemaren ondorio nabarmena dela: «Hezkuntza sistema horren ildo nagusiak Parisen eta Madrilén zehazten dituzte, haien interesen arabera».

IAk kolonizaziotzat jo du Madrilék eta Parisek, irakas-kuntzaren bidez, Euskal Herrian egiten duten hezkuntza politika: «Egungo irakas-

kuntzak erdal hizkuntza eta edukiak bultzatzen ditu euskal hizkuntza eta edukien gainetik».

IAk dioenez, lanbide heziketaren kasuan, euskaraz ikasteko ematen duten ukazioak «ondorio larriak» dakartza, ez bakarrik euskaraz ikasi ezin duten ikasleentzat, baizik eta baita Euskal Herriarentzat ere, «langile euskaldunak izatea ukatzen zaion heinean».

HB: «Donostiako Euskararen Normalizazio II. Plangintza hankaz gora jartzeko arriskua dago»

■ Udal gobernuko ordezkari politiko batzuen jarrera oztopatzailea salatu du

Erredakzioa / Donostia

DONOSTIAKO Herri Bata-sunak salatu du Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plangintza «hankaz gora botatzen» saiatzaren ari direla udal gobernuko ordezkari zenbait.

HBk gogoratu du bigarren plangintza 1998ko apirilean onartu beharrekoa zela. Alabaina, ordezkari politiko eta tekniko batzuen aldetik lanpostu batzuen hizkuntz eskakizuna jaisten eta derrigortasun egunak atzeratzen saiatzaren ari dira, edo etengabe luzatzen, eta, HBk dioenez, «amnistiaz» hitz egiteraino iritsi dira.

Hainbat lanpostutan dauden zenbaitek euskalduntzeko ikastaroetan parte hartzeko borondateirik ez dute, HBk dioenez, eta, gainera, arduradun politiko zenbaitek langile horien «utzikeria» elikatzen dute, HBren iritziz.

«Egoera hori dela eta, legez kanpoko hainbat egoera atzeko atetik egokitu nahi dituzte», HBk dioenez. Ildo horretan, talde horren irudiko, «argi gorria» piztu da Donostiako Udalean. Ildo horretan, HBk dei egin die euskararen berreskuratzearan alde dauden alderdiei «eske-ma zaharrak hautsi eta HBrekin batera euskararen aldeko bigarren plangintza egokia bideratzera».

Bidenabar, HBk lau proposamen egin ditu egoera horri aurre egiteko: lanpostu berrietan euskarjakitea derrigorrezkoa izatea; zazpi urteotan euskalduntzeko prozesuan sartu nahi izan ez dutenak lanpostuz aldatzea, soldata mantenduz; euskalduntzeko borondatea agertu baino ahaltsu ezkizunak epe motzean ikasteko liberatzea; lanpostuaren izaeragatik ordezkazekin direnak euskalduntze prozesu trinkoetan sartzea epe motzean, eta hizkuntz eskakizuna betetzen duten laguntzaileak izendatzea.